



## ERABAKIA

### **Toki korporazioetako kideen ordainsarien araubidea arautuko duen Foru Arauaren proiektua onestea.**

Lurralde Historikoetako foru organoei emandako eskumenen artean dago toki korporazioetako kideen gehieneko ordainsarien arau esparrua ezartzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian (euskal foru araubidea) xedatutakoa betetzeko:

*“Aurrekontua egonkortzeko helburuen esparruan, eta toki araubidearen eta toki finantzaketaren arloan Espainiako konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak, Autonomia Estatutuak, Ekonomia Itunaren Legeak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriak ematen dizkieten eskumenez eta ahalmenez baliatuta, euskal Lurralde Historikoetako foru organoek zehaztuko dituzte toki korporazioetako kideen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak (...). Ordainsari horiek zehazteko, estatuko legeek ezarritako printzipioak eta egitura hartuko dira kontuan, hala badagokio.”*

Nolanahi ere, 2019ko maiatzaren 29an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Laugarren Atalak 677/2019 epaia eman du, zeinaren bidez berresten baita EAeko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren epaitza (86/2016 epaia 199/2015 errekurtsioan), non aurkaratzen baita Arabako Batzar Nagusien otsailaren 11ko 4/2015 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioetan arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzeak duen foru berezitasunari buruzkoa (ALHAOren 22. alean argitaratua, 2015eko otsailaren 20an).

EAEANen epaiaren zuzenbide oinarrietatik seigarrenean, adierazten da ezen 4/2015 Foru Arau horren 4.1. artikulua ezartzen duela zein den toki korporazioetako kideen ordainsarien araubidea, baina ez datorrela bat Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 2. xedapen gehigarriaren 11. apartatuarekin, zeina 27/2013 Legeak sartu baitzuen; izan ere, haren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoek zehaztuko dute zeintzuk izango diren toki korporazioetako kideen eta korporazioen zerbitzura dauden langileen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak, estatuko legeek ezarritako printzipioekin eta egiturarekin bat etorritik.

Zehazki, epaiak agerian utzi dute desadostasun bat dagoela foru araudian ezarritako populazio tarteen eta estatuko araudian ezarritakoen artean.

Horregatik, behar-beharrezkoa da estatuko legeetan ezarritako printzipioekin eta egiturarekin bat datorren Foru Arau bat onestea, aipatu diren epaietako zuzenbide oinarrietan zehaztutako eran.

Administrazio izapideak egitean, kontuan hartu da xedapen orokorrak onesteko prozedura arautzen duen 29/2017 Foru Dekretuak, maiatzaren 23koak, 17.1 c) artikuluan agintzen duena.

Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudiak 144. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta Foru Arauaren proiektuaren izaera eta sinpletasuna kontuan hartuta, proiektu hori irakurketa bakarraren prozeduraz izapidetzeko eskatu zaio Batzar Nagusien Mahaiari.

Batzar Nagusien Mahaiak ez badu eskaera onartzen, eta ikusirik foru ordenamenduan hutsune bat dagoela Lurralde Historikoarena den eskumen bati dagokionez, Foru Arauaren proiektua presako prozeduraren bidez izapidetzea eskatuko da, Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudiak 148. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

### **XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. Toki korporazioetako kideen ordainsarien araubidea arautuko duen Foru Arauaren proiektua onestea, zeina erabaki honen eranskin gisa azaltzen baita.

Bigarrena. Batzar Nagusien Mahaiari eskatzea Foru Arauaren proiektua izapidetu dezala irakurketa bakarraren prozeduraz, edo, bestela, presako prozeduraz, azaldutako arrazoiengatik eta bat etorritz Funtzionamendu Araudiaren 144. eta 148. artikuluetan aurreikusitakoarekin.



## ERANSKINA

### **TOKI KORPORAZIOETAKO KIDEEEN ORDAINSARIEN ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUAREN PROIEKTUA**

#### **ZIOEN ADIERAZPENA**

Lurralde Historikoetako foru organoei emandako eskumenen artean dago toki korporazioetako kideen gehieneko ordainsarien arau esparrua ezartzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian (euskal foru araubidea) xedatutakoa betetzeko:

*“Aurrekontua egonkortzeko helburuen esparruan, eta toki araubidearen eta toki finantzaketaren arloan Espainiako konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak, Autonomia Estatutuak, Ekonomia Itunaren Legeak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriak ematen dizkieten eskumenez eta ahalmenez baliatuta, euskal Lurralde Historikoetako foru organoek zehaztuko dituzte toki korporazioetako kideen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak (...). Ordainsari horiek zehazteko, estatuko legeak ezarritako printzipioak eta egitura hartuko dira kontuan, hala badagokio.”*

Nolanahi ere, 2019ko maiatzaren 29an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren Laugarren Atalak 677/2019 epaia eman du, zeinaren bidez berresten baita EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren epaitza (86/2016 epaia 199/2015 errekurtsioan), non aurkaratzen baita Arabako Batzar Nagusien otsailaren 11ko 4/2015 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioetan arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzeak duen foru berezitasunari buruzkoa (ALHAOren 22. alean argitaratua, 2015eko otsailaren 20an).

EAEANen epaiaren zuzenbide oinarrietatik seigarrenean, adierazten da ezen 4/2015 Foru Arau horren 4.1. artikulua ezartzen duela zein den toki korporazioen kideen ordainsarien araubidea, baina ez datorrela bat Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 2. xedapen gehigarriaren 11. apartatuarekin, zeina 27/2013 Legeak sartu baitzuen; izan ere, haren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoek zehaztuko dute zeintzuk izango diren toki korporazioetako kideen eta korporazioen zerbitzura dauden langileen ordainsarien eta asistentzien gehieneko mugak, estatuko legeak ezarritako printzipioekin eta egiturarekin bat etorritz.

Zehazki, epaiek agerian utzi dute desadostasun bat dagoela foru araudian ezarritako populazio tarteen eta estatuko araudian ezarritakoen artean.

Horregatik, behar-beharrezkoa da estatuko legeetan ezarritako printzipioekin eta egiturarekin bat datorren foru arau bat onestea, aipatu diren epaietako zuzenbide oinarrietan zehaztutako eran.

Foru Arauak artikulua bakar bat eta azken xedapen bat ditu.

#### **Artikulu bakarra. Toki korporazioetako kideen ordainsariak.**

1. Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki entitateetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak ondorengo taularen arabera izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hirurtekoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria:

## BIZTANLE KOPURUA

## ERREFERENTZIA

20.001 - 50.000 .....Eusko Jaurlaritzako sailburua – ehuneko 15

10.001 - 20.000 .....Eusko Jaurlaritzako zuzendaria

5.001 - 10.000 .....Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – ehuneko 10

1.001 - 5.000 .....Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – ehuneko 15

Gehienez ere 1.000 .....Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – ehuneko 25

2. Lurralde Historikoko hiriburuari aplikatu beharreko gehieneko muga 95.000 euro izango da; betiere Eusko Jaurlaritzako sailburuari dagokion ordainsaria eguneratzen den moduan eguneratuta.

3. Dedikazio partzialei aplikatu beharreko gehieneko mugak honela kalkulatu dira: goiko taularen arabera dagozkien toki erakundeak erabakitako dedikazio ehunekoa aplikatuta.

4. Lehenengo apartatuan ezarritako gehieneko zenbatekoak erreferentzia gisa hartutako Eusko Jaurlaritzako kargudunen ordainsariak bezalaxe eguneratuko dira.

5. Arabako Foru Aldundiaren urte bakoitzeko aurrekontuei buruzko Foru Arauan beste muga batzuk ezarri ahal izango dira, abagune jakin bateko politika ekonomiko orokorrak bultzatuta.

### **Azken xedapena.**

Foru Arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.